

2020/21 ikasturteko bekak

2020/2021 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **azaroaren 9a** bitarte irekita egongo da. Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagotarako idazkaritzara deitu 943361216 telefonora.

Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke.



TANTAren zenbaki saritua: 043.939

TANTA elkartasun txartelak eskuratzearen truke iragarrita zegoen 60.000 euroren zozketa urriaren 21ean egin zen. Andres Urrutia notario jaunaren aurrean eginda zozketa, eta hauxe izan da zenbaki saritua: **043.939**. Zenbaki sarituaren onuraduna agertuko ez balitz, ordezeko beste zenbaki bat ere atera da. Ordezko zenbaki hori hauxe da **017.203**.



Saria jasotzeko zenbaki saritua duen onuradunak hilabete bateko epea izango du. Epea agortuta agertuko ez balitz, ordezeko zenbakia duenak beste hilabete bateko epea izango luke saria eskatzeko.

Mila esker TANTA txartelak erosiz ikastolekiko elkartasuna erakutsi duzuen guztioi, eta zorionak zenbaki saritua egokitu zaionari. Elkartasunak saria du!

Zumetaren artelana

Jose Luis Zumeta margolari usurbildarrak Gattunk Kilometroak festarako egindako artelanaren serigrafia erosteko aukera zabalduko da.

Eskaera usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz egin daiteke. Prezioa 150 eurokoa da.



Errigora

Errigora kanpaina abian da, **urriaren 24tik azaroaren 12ra** arte. 3 saski ezberdin daude aukeran:



- **Saski beltza (betikoa):** orburuak, pikillo marmelada, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, teilak, tomate frijitua, mertxika almibarretan, oliba-olio birjina estra, kardua, mahats zukua, botila ardoa, potxak, piper mamia (50 €) + korrika katilua (5 €) = **55 €**
- **Saski berdea (ekologikoa):** txitxirioak, ardo-ozpina, oliba-olio birjina estra, barazki menestra, pasta, orburuak, pikillo piperrak, arroza, zainzuri-zuriak, botila ardoa, udare zukua (60 €) + Seaskaren egutegia (5 €) = **65 €**
- **Saski zuria (berezia):** orburuak, pikillo piperrak, zainzuri-zuriak, botila kiantza, txokolatezko zigarretak, patxaran-pastak, patxarana, oliba-olio birjina estra, arbendol-polboroiak (70 €) + D ereduaren haziak (5 €) = **75 €**

[Informazio gehiago...](#)

OHARRAK ETAPAKA

HAUR HEZKUNTZA (0-6urte)

Gela-bilerak Haur Eskolan

Gela-bileren egutegia honakoa da:

MAILA	EGUNA	ORDUA
0-1	Azaroak 4, asteazkena	17:00
1-2	Azaroak, 4 asteazkena	17:30
2-3	Azaroak 3, asteartea	17:00

Kontuan hartu, familiako kide bakarra etor daitekeela. Familia bananduen kasuetan, bi gurasoek etortzeko aukera izango dute.


Maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da.



Gela-bilerak HH3 urteko gelan

HH 3ko ikasturte hasierako gela-bilerak **urriaren 27an** izango dira jangelan. Gogoratu izena eman behar dela eta ez dela zaintza zerbitzurik eskainiko.

Izenik eman ez baduzue, tutoreari jakinarazi, antolaketarako kopurua jakin behar baitugu.



LEHEN HEZKUNTZA

LH 6. mailako familiei zuzendua

LH 6. mailako ikasleei papilomaren (neskei soilik) eta meningokokoaren (denei, neska eta mutilei) aurkako txertoa emango die Osakidetzak. Horretarako, **gaur**, ikasleek **baimena sinatzeko** eramango dute etxera eta ikastolara **urriaren 27rako ekarri** beharko dute.



Eskolako Agenda 2030

Abiatu berri dugun 2020-2021 ikasturtean, orain arte ezaguna genuen Eskolako Agenda 21 programa **Eskolako Agenda 2030**ean bihurtu da. Agenda berri hori, Nazio Batuetako Erakundeak adostutako Garapen Iraunkorreko 17 helburuetan oinarritzen da. Helburu horiek 2015eko irailaren 25ean onartu zituzten NBE osatzen duten 193 herrialdeek, nagusiki mundu mailan pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko.



Hemendik aurrera, eskolan egingo dugun lanketa helburu horietan oinarrituko da. Aurtengoan, hamabosgarren helburua izango dugu abiapuntua: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA. Oso helburu zabala da: *“Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea”*. Oraingoan, zehazki, BASOEN inguruan arituko gara.

Ikasturtean zehar, zuen seme-alabekin batera, hausnartzeko aukera paregabea dugu. Egingo diren ekintzen berri izango duzue eta zuen proposamenak ongiatorriak izango dira. Animatzen zaituztegu zuek ere jasangarritasunaren trenera igotzera! BIZITZA HORRETAN DOAKIGU! [Eskola agenda 2030](#)

DBH

DBH 4ko familientzat hitzaldia bertan behera

Urriaren 26rako antolatuta zegoen droga-mendekotasunaren prebentzioari buruzko hitzaldia **bertan behera** geratu da taldea osatu ez delako.



Atzerriko hizkuntza-ikastaroen beka-deialdia

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du 2020-21 ikasturterako ez dela atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko beka-deialdirik argitaratuko.

[Informazio gehiago...](#)




Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntza-deialdia


Eusko Jaurlaritzak, unibertsitatez kanpoko mailetakoko ikasleei zuzenduta, gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzak emango ditu. Eskaera egiteko epea **azaroaren 15a** bitarte egongo da irekita.



Eskakizunak:

- 2019-20 ikasturtean eskola materialaren atalean bekaduna izatea.
- Aurreko deialdietan diru-laguntza hori bera jaso ez izana.
- Era telematikoan egitea.

a. [Ziurtagiri digitalaren bidez](#)  NAN, lizenpe txartela... edo itsasontzien jokoa erabilita (B@kq). Modalitate horretan **ez** da eskabide-formulariorik ikastetxean aurkeztu behar.

b. [Sisteman erregistratuta](#)  helbide elektronikoko baten bidez **eta honako bide hauetako bati** jarraituta: HIA (Hezkuntzako Identifikazio Agiria) edo NAN. **Beharrezkoa** da ikastetxeko idazkaritzan azaroaren 15a baino lehen aurkeztea.

Informazio osoa: www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/dispositivos-digitales/web01-tramite/eu/

Gazteleraz irakurri nahi baduzu,
Para leer en castellano,

